



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko urtarrilaren 26a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak ([2. or.](#)).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—68/06 Ebazpena, abenduaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarena. Horren bidez, Julián Manteca Pérez, arartekoaren aholkulari teknikoa, kargutik kendu du, berak eskatuta. Kargu-uzteak 2006ko abenduaren 31tik aurrera izanen ditu ondorioak ([15. or.](#)).

—03/07 Ebazpena, urtarrilaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarena. Horren bidez, José Ignacio Echeverría Echeverría jauna arartekoaren aholkulari tekniko izendatzen da ([15. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2006ko azaroaren 10eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Bigarren idatz-zatian, 5.2 artikulua amaieran hain zuzen ere, honako testua gehitzeko zuzenketa:

“Publikoak izanen dira, halaber, baldin eta haien jabari erabilgarria, osorik edo zati batean, entitate administratibo batena bada, nahiz eta zuzeneko jabaria partikularrena izan.”

Zioak: Mendien araubidea nagusiki publikoa denez, mendirik gehienak herri ondarea dira gainera, eta Nafarroak arlo honetan duen eskumena kontuan hartuta, ezin da ulertu zergatik kendu den 13/1990 Foru Legean zegoen zati hori. Horrenbestez, berreskuratzea proposatzen dugu.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Bigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

5.3 artikulua ordez honako testu hau jarzea proposatzen da:

“Mendi pribatuak, berriz, zuzenbide pribatuko pertsona fisiko edo juridikoenak izan eta aurreko lerrokatetan definitu gabeko gainontzekoak dira.”

Zioak: Proposatu den testua inkongruentea izan liteke gure eskumenarekin, eta gai honetan dagoen ekintza publikoarekin berarekin ere bai; ekintza publiko hori jasota ageri zen jada 1990eko legean eta arrazoizkoa iruditzen ez zaigun atzerapausoa da.

3. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hirugarren idatz-zatian, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legeko 6. artikuluari beste idatz-zati bat, 6.a, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“6. Foru lege honetan araututako gaietan eragin zuzena duen edozein foru edo toki araubidek oihan administrazioaren txostena beharko du aurretik.”

Zioak: Saihestea onets dadin foru lege honetan araututako gai buruzko araurik oihan administrazioak aurretik jakin gabe. Basoen interes publikoak, eta Nafarroako mendi asko onura publikoko mendi gisa katalogatuak egoteak, oihan administrazioak horiekin zerikusia duten jardueren gaineko ezagutza eta kontrol handiagoa izatea eskatzen du, baina hori, betiere, mendien jabe diren toki entitateen eskumenei kalterik egin gabe.

4. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Seigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

7.1 artikulua ordez honako testu hau jartzea proposatzen da:

“Naturgune babestuak edo haien zati diren mendiak edo oihan lurrak, haien babes eremuak barne, eta Natura 2000 sarekoak ere, berariazko legedia izanen dute. Edonola ere, oihan erabilerak edo ekintzak onartzen dituzten gune babestuetan, horiek foru lege honetan ezarritakoaren pean geldituko dira, araubide berezian ezarritakoaren aurkakoa ez bada”.

Zioak: Ezin da ahaztu naturgune babestuetaz ari garela eta hori dioen lege bat badela, 9/1996 foru legea; bestela, kontraesana sor liteke, eta ingurumenaren aldetik atzerapauso handia litzateke.

5. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Seigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

7.2 artikulua ordez honako testu hau jartzea proposatzen da:

“Naturgune babestuak eta babes bereziko beste mendi batzuetan, aprobetxamendu guztiek oihan administrazioaren baimena beharko dute; oihan administrazioari dagokio zuzenki seinaltatu, mendia eman eta ikuskatzea, eta oihan aprobetxamenduen gaineko beste edozein zehaztapen egitea”.

Zioak: Eskumen hori ezin da beste ente batzuen eskuetan utzi, gune horiek foru erkidego guztientzat baitira oso garrantzitsuak.

6. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Zortzigarren idatz-zatian, 9.2 artikulua amaieran hain zuzen ere, honako testua gehitzeko zuzenketa:

“..ingurumen administrazioak aurretik txostena egin ondoren”.

Zioak: Ezin da administrazio horren esku-hartzea ezabatu; 1990ean ere hala zen.

7. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Zortzigarren idatz-zatian, 9.3 artikuluan hain zuzen ere, beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa:

“Mendi bat katalogotik ez da inoiz aterako katalogatzea eragin zuten ezaugarriak sute baten ondorioz galtzen dituztena”.

Zioak: Salbuespen hori sartzeko mendiak katalogotik ateratzeko prozesuetan.

8. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Zortzigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

9.5 artikuluan, “Nafarroako Gobernuak aurretik bien arteko bateragarritasun deklarazioa...” jartzen duenetik amaierara bitartekoa kendu eta, horren ordez, honako testu hau jartzea proposatzen da:

“..Nafarroako Gobernuak aurretik bien arteko bateragarritasun deklarazioa egin beharko du, edo bati bestearen gainetik lehentasuna ematekoa; aurretik, oihan administrazioak txosten loteslea emanen du, interesdunei entzutea emanen zaie eta plana edo proiektua jendaurrean jarriko da, erregelamenduz ezarritako prozeduraren arabera”.

Zioak: Gai honetan eta kasu hauetan, babesa, informazioa eta parte-hartzea nahitaezkoak dira jarduketaren desegokitasun zantzuak uxatzeko.

9. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hamabigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

18.1 artikuluan, “prozedura horretan entzutea emanen zaie...” jartzen duenetik amaierara bitartekoa kendu eta, horren ordez, honako testu hau jartzea proposatzen da: “..prozedura horretan entzutea emanen zaie jabeei eta mendia dagoen toki entitateari, ingurumen administrazioaren txostena-ekin”.

Zioak: Entzutea ematea nahitaezkoa da, eta ingurumen administrazioaren txostena ere derrigorrezkoa da.

10. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hamabigarren idatz-zatian, 61. artikuluko lehen idatz-zatiko 2. lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“antzeko espedientea tramitatuz” dioen lekuan, “espediente analogoa tramitatuz” esan behar du.

Zioak: Zehaztea, segurtasun juridikoa saihesteko.

11. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hamalagarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. 20. artikuluko 4. idatz-zatia.

“Urtebeteko epean” dioen tokian “hiru urteko epean” esan behar du.

Zioak: Administrazioak epe luzeagoa izan dezala atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzeko mendiaren titularrak ez duenean bete transmisioa sinesgarriro jakinarazteko betebeharra.

12. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hamabosgarren idatz-zatian, 23. artikuluko 2. idatz-zatian hain zuzen ere, beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Aginduzko txostena aurkakoa bada, azpiegituraren izapideak gelditu eginen dira harik eta aurkezten den basoberritzeko proiektuak aldeko txostena lortzen duen arte”

Zioak: Hondatu edo urez hartutako oihan azalera egoki basoberrituko dela bermatzea.

13. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hamabosgarren idatz-zatian, 23. artikuluko 4. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa:

“bost metro zabal gutxienez” esan beharrean, hauxe esan behar du: “hamar metro zabal gutxienez”

Zioak: Bost metroko zerrenda gutxiegi iruditzen zaigu.

14. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hamazazpigarren idatz-zatian, 25. artikuluko 1. idatz-zatiaren amaieran hain zuzen ere, testu hau gehitzeko zuzenketa:

“..ingurumen administrazioak aurretik txosten loteslea egin ondoren”

Zioak: Mendien alderdi ekologikoa zaintzea eta mendien oihan alderdia zaintzea, batzuetan, ez dira gauza bera, eta, beraz, batak bestearen gainetik egon behar du.

15. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hamazazpigarren idatz-zatian, 13/1990 Foru Legeko 25. artikuluko 5. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa. Hona testua:

“5. Ibai ibilguen ondoan dauden berezko zuhaitzien erabilera aldatzea debekaturik dago, zein den ere lurraren sailkapena...”

Zioak: “Lur mota” esanda, ezaugarri fisikoei buruz ari gara. Erabilera aldaketei buruz ari bagara, kalifikazioa edo sailkapena esatea da egokia.

16. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hemezortzigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“oihan administrazioaren aginduzko txostena beharko da” esan beharrean, hauxe esan behar du: “oihan administrazioaren aginduzko txosten loteslea beharko da”.

Zioak: Oihan lurrek babes hobea izan dezaten bermatzea.

17. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hemezortzigarren idatz-zatian, 26.2 artikuluan hain zuzen ere, testu hau gehitzeko zuzenketa:

“eta ingurumen administrazioaren”

Zioak: Argi gelditu behar du oihan- eta ingurumen-txostena behar dela, eta ez soilik oihan txostena.

18. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hemeretzigarren idatz-zatian, 29.1 artikuluan amaieran hain zuzen ere, testu hau gehitzeko zuzenketa:

Oihan administrazioaren eta obra, zerbitzua edo kontzesioa bere esku duen departamentuaren artean irizpideetan adostasunik ez badago, edo entitate publiko titularra aurka agertzen bada, Nafarroako Gobernuak ebatziko du desadostasuna”.

Zioak: Desadostasunak ez uztea aurreikusitako gabe, eta horiek konpontzeko bideak ezartzea, ardurak behar bezala banatuta.

19. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeigarren idatz-zatian, 32.2 artikuluan amaieran hain zuzen ere, testu hau gehitzeko zuzenketa:

“..eta ingurumen administratioari, naturgune babestuei dagokienez.”

Zioak: Ingurumenarekin zerikusia duen alderdia ezabatzen ari da, eta, gure ustez, alderdi hori oso garrantzitsua da.

20. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita batgarren idatz-zatian, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legeko 37. artikuluan 1. idatz-zatian hain zuzen ere, beste esaldi bat gehitzeko zuzenketa.

1. idatz-zatia honela geldituko litzateke:

“1. Foru Komunitateko administrazioaren esku-mena da oihaneko suteei aurrea hartzeko eta haien aurka borroka egiteko behar diren neurriak planifikatu, koordinatu eta gauzatzea; horrek ez ditu beste administrazio publiko batzuen eskumenak galarazten, eta areago, lankidetzaren harremanak izanen ditu haiekin. Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Departamentuak izanen ditu oihaneko suteen prebentzioarako ahalmenak eta sute horiek itzaltzeko aholkularitza teknikoak”.

Zioak: Argitzea Nafarroako Gobernuaren departamentuek zer eskumen dituzten oihaneko suteen arloan.

21. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hirugarren idatz-zatian, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko 13/1990 Foru Legeko 40. artikuluan 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Badakigu galondoak erretzea ohikoa eta usadiozkoa dela erkidego honetan, eta badakigu zuzenketa hau gaizki har dezaketela Nafarroako nekazari askok; horrenbestez, uste dugu gai horri buruzko eztabaida ireki behar dela eta, ohitura hori kentzearen ordainetan, beste neurri batzuk hartu behar direla. Era horretan, Europar Batasunean nagusi diren planteamenduekin bat eginen genuke eta egun dauzkagun sute-arrisku handiak saihestuko genituzke.

22. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hirugarren idatz-zatian, 40. artikuluko 3. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa:

“haren ordez beste bitartekorik erabiltzerik ez dagoenean” esan beharrean, hauxe esan behar du: “txosten batek, aldez aurretik, beste bitartekorik erabiltzerik ez dagoela frogatzen duenean”.

Zioak: Sua oihan kudeaketarako erabiltzeko baimen salbuespenezkoa arrazoitu eginen dela bermatzea.

23. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hirugarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

40.3 artikuluan, “haren ordez arrazionalki beste bitartekorik erabiltzerik ez dagoenean” esan beharrean, hauxe esan behar du: “haren ordez tekniko ki beste bitartekorik erabiltzerik ez dagoenean”.

Zioak: Zer den edo ez den arrazoizkoa nahiera erabaki dadin saihestea, eta, horren ordez, konponbide tekniko objektibagarririk dagoen edo ez dagoen izan dadila irizpidea.

24. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita laugarren idatz-zatian, 13/1990 Foru Legeko 42. artikuluko 2. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa. Hona testua:

“2. Oihan administrazioari dagokio (...) oihane ko prebentzio neurriak betearaztea, bai eta, Nafarroako Larrialdietako Agentziari aholkularitza tekniko a emanez, sutea itzaltzeko lanetan parte hartzea ere”.

Zioak: Oihaneko sute bat itzaltzerakoan, oihan administrazioak aholkularitza tekniko a emanez (mendiaren ezagupena, iristeko bideena etab.) esku hartu beharra dauka. Izan ere, gaur egun, normaltasunez egiten den zerbait da hori.

25. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeitaseigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. 45.4 artikuluan orde z honako testu hau jartzea proposatzen da:

“Oihan administrazioak onetsi beharko ditu basoberritzeko proiektuak; aurretik, ingurumen administrazioak txostena egin beharko du. Salbuesita egonen dira, betiere, onura publikokoak edo babesleak edo foru lege honen 7. artikuluan arautuak ez diren eta oihan administrazioak berak onetsitako kudeaketa tresna bat duten mendiak, baldin eta proiektuak aipatutako tresnak agintzen duenari lotuz betetzen badira; horrelakoetan, alde z aurretik eskatzea edo jakinaraztea izanen da bete-behar bakarra, eta, betiere, aurretik, ingurumen administrazioaren aldeko txostena beharko da proiektua gauzatzeko.”

Zioak: Oihanarekin zerikusia duten alderdiak eta ingurumenarekin zerikusia dutenak bereizi beharra dago, eta, tresna bat egonda ere, ingurumen txostenak ezin du falta; izan ere, denbora pasatu ahal izan da tresna onetsi zenetik edo inguruabarrek funtseszko aldaketak izan ahal izan dituzte. Tresna batek ez du baliogarritasun mugagaberik eta erlatibizatu egin behar da.

26. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hemeritzigarren idatz-zatian, 50.1 artikuluan amaieran hain zuzen ere, testu hau gehitzeko zuzenketa:

“...; ingurumen administrazioak aurretik txostena egin beharko du”.

Zioak: Ingurumen alderdia bereizia dago oihanarekin zerikusia duen alderditik, eta departametu antolatze ko moduarekin ez du loturirik.

27. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hemeretzigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. 50.3 artikuluko lehenengo esaldiaren amaieran, ondoko testua jartzea proposatzen da:

“...; tresna horrek ingurumen administrazioaren txostena beharko du eta gizartearen parte hartze ahalik eta handienerako bidea emanen du.”

Zioak: Ez da soilik ingurumen txostena egin behar; gizarteak tresna honetan parte hartzea nahitaezkoa da.

28. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hemeretzigarren idatz-zatian, 50.4 artikuluan hain zuzen ere, beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Tresna horiek egiterakoan, aholkua eskatuko zaie toki entitateei, oihan jabe pribatuei halakorik badago, ukitutako beste erabiltzaile zilegi batzuei eta interesa duten gainerako gizarte- eta erakunde-eragileei.”

Zioak: Tresna prestatzean ere parte hartzea handia behar da.

29. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hemeretzigarren idatz-zatian, beste idatz-zati bat, 50.6, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Tresna berrikusteko edo aldatzeko prozedura berari jarraituko zaio.”

Zioak: Koherenteak izateko, tresna berrikusteko edo aldatzeko prozedura jaso behar da.

30. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hemeretzigarren idatz-zatian, beste idatz-zati bat, 50.7, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Antolakuntzako tresnan ezarritako epeetan, tresna horren betetze maila ebaluatu beharko da, eta, egoki iritziz gero, behar diren aldaketak tramitatu.”

Zioak: Tresna ez da betiko, eta legearen edukia eta eginiko aurreikuspenak hobetu egiten ditu.

31. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hamaikagarren idatz-zatian, 51. artikuluko 1. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa:

“haien erabilera arrazoizkoa” dioen tokian, hau esan behar du: “haien erabilera iraunkorra”

Zioak: Testua hobetu eta argitu egiten du, gure ustez.

32. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hamahirugarren idatz-zatian, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legeko 53. artikularen 1. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa. Honela geldituko da:

“1. Mendi publikoetan, foru lege honen 7. artikuluan aurreikusitako mendietan, egindako zur eta egurretako aprobetxamendu guztiak oihan administrazioak onetsi beharreko aprobetxamendu eta hobekuntza planetan zehaztu beharko dira.”Zioak: Oihan administrazioak planak onetsi ez ezik pres-tatu ere egin behar ditu. Oraingo testuak atea irekita uzten du beste administrazio batzuk egin ahal izan ditzaten.

33. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hamahirugarren idatz-zatia, 53. 1 artikulua hain zuzen ere, aldatzeko zuzenketa.

“urtero onetsi beharreko” jartzea eta “oihan administrazioak” kentzea proposatzen da.

Zioak: Aprobetxamendu eta hobekuntza planak, gure ustez, urtero egin behar dira.

Zioak: Artikulua hobetzea, lausoa baita eta nahierara jokatzeke bidea ematen baitu.

40. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hamalaugarren idatz-zatian, 13/1990 Foru Legeko 54. artikuluko 2. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa. Hona proposatutako testua:

“2. Oihan administrazioari eskatuta eta gai horretan eskumena duen kontseilariaren adostasunarekin, titularrek jarduketa horiek bere gain hartu ahalko dituzte, hobekuntzarako mozketetan eta arraseko mozketetan.”

Zioak: Akordioa ez da araututako prozedura bat. Prozedura zehaztu beharra dago eta espresuki baimendu behar da.

41. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

54.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. 54.3 artikuluen ordez honako testu hau jartzea proposatzen da:

“Edozein modutan ere, oihan administrazioari dagokio zuhaitzak seinalatzea, lizentzia ematea, mendia eman eta ikuskatzea, baldintza teknikoak finkatzea aprobetxamenduak berekin dakartzan lanen exekuzioa egokia izan dadin, eta hobekuntza planak ezartzea.”

Zioak: Gai horri dagokionez, indarrean dugun foru legeak ona dela erakutsi digu, eta aldaketak hori alda lezake.

42. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hamabosgarren idatz-zatian, 13/1990 Foru Legeko 55. artikuluko 1. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa. Hona proposatutako testua:

“1. Mendi pribatu antolatu guztietan... Bi hilabeteke epean administrazioak ez badu ebazpen adierazirik jakinarazi, plana onetsitatzeko joko da.”

Zioak: Administrazioak beti erantzun behar du. Isiltasun positiboek edo negatiboek adierazten

duena da administrazioa ez dela behar bezain eraginkorra. Eta izan behar du.

43. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hamabosgarren idatz-zatian aldaketa egiteko zuzenketa. Lehenbiziko esaldiaren amaieran, honako testua gehitzea proposatzen da:

“..titularrentzat nahitaezkoak izanen baitira.”

Zioak: Antolatuta daudela abiapuntu hartuta, jarraibide horiek ezartzen badira argi gelditu behar du nahitaezkoak direla, bestela ez dute askotarako balio.

44. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hamabosgarren idatz-zatian, 55.2 artikuluan hain zuzen ere, azpimarratutako hauek gehitzea proposatzen da:

Gaztelaniazko testuan, “formulada por...”

“baldintza teknikoak ezarri ahalko dira” beharrean, “baldintza teknikoak ezarriko dira”

“..behar diren ekintzak ere, titularrentzat nahitaezkoak izanen baitira.”

Zioak: Antolatuta ez daudenetan, baimenak baldintzak nahitaez ezarriko ditu, eta baldintzok lotesleak izanen dira.

45. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hamabosgarren idatz-zatian, 55.3 artikuluen oraingo testuaren ordez honako testua jartzea proposatzen da:

“Edozein modutan ere, oihan administrazioari dagokio zuhaitzak seinalatzea, mendia ikuskatzea, baldintza teknikoak finkatzea aprobetxamenduak berekin dakartzan lanen exekuzioa egokia izan dadin, eta zuhaitzia birsortzeko behar diren neurriak ezartzea.”

Zioak: Gure ustez, emaitzak ez dira txarrak izan, justu kontrakoa: indarrean dagoen legea tresna bikaina izan da.

46. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hamabosgarren idatz-zatian, 13/1990 Foru Legeko 55. artikuluko 3. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa. Hona proposatutako testua:

“3. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa galarazi gabe, eta aprobetxamendu txikiatarako, baimenerako prozedura erraztu bat ezarriko da erregelamenduz, aurretiko jakinarazpenarekin.”

Zioak: Administrazioak beti erantzun behar du. Isiltasun positiboek edo negatiboek adierazten dutena da administrazioa ez dela behar bezain eraginkorra. Eta izan behar du.

47. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Hogeita hamaseigarren idatz-zatian, 56. artikuluko 2. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa:

“bost metro zabal gutxienez” esan beharrean, hauxe esan behar du: “hamar metro zabal gutxienez”

Zioak: Bost metroko zerrenda gutxiegi iruditzen zaigu.

48. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Berrogeigarren idatz-zatian, 63. artikuluko 1. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa:

“Sustapena honakoetan oinarrituko da” esan beharrean, hauxe esan behar du: “Sustapena honakoetan oinarritu ahalko da”

Zioak: Laguntza publikoak ez daitezela nahitaezkoak izan.

49. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Berrogeigarren idatz-zatian, 13/1990 Foru Legeko 63. artikuluko 1. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa. Hona proposatutako testua::

“1. Nafarroako Gobernuak oihaneko lan- eta zerbitzu-enpresen birmoldaketa eta hobekuntza sustatuko ditu, bai eta lehen transformazioko industriena ere, honakoena barne: zerrategiak, xaflak, oholak, oreka, papera, kortxoak eta oihan biomasa. Sustapena...”

Zioak: Oihan biomasaren aprobetxamendua puri-purian dagoen gaia dugu, eta hala agertzen da lege proiektu honetako beste artikuluko batzuetan. Hemen ere, oihan enpresei buruz ari dela, agertu behar luke.

50. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Berrogeita batgarren idatz-zatian, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legeko 63. bis artikuluari beste idatz-zati bat, 5.a, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“5. Oihan biomasaren erabilera sustatuko da, energia termikoa lortzeko nagusiki, eta, bereziki, eraikin publikoetan eta etxebizitza babestuetan, bai eraikita daudenetan, teknikoki posible bada, eta baita eraikitzeko daudenetan ere.

Zioak: Egon badagoen baliabide bati balioa ematea, eta, horrela, merkataritza sektorea indartzea eta berriztagarria den eta kutsakorra ez den energia baten erabilera sustatzea; era horretan, karbono dioxidoaren igorpenak gutxitu eta Kiotoko Protokoloa beteko litzateke.

51. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Berrogeita hirugarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“Laguntza teknikoa eta ekonomikoa emanen die mendi edo oihan lur publiko nahiz pribatuen

titularrei, oihan aprobetxamenduen titularrei, oihan elkarteei eta oihan industria eta enpresei” esan beharrean, hauxe esan behar du: “laguntza tekniko eta ekonomikoa eman ahalko die mendi edo oihan lur publiko nahiz pribatuen titularrei, oihan aprobetxamenduen titularrei, oihan elkarteei eta oihan industria eta enpresei”.

Zioak: Laguntza publikoak ez daitezela nahitaezkoak izan.

52. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Berrogeita seigarren idatz-zatian, 13/1990 Foru Legeko 69. artikuluko 1. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa. Hona proposatutako testua::

“1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak programatu eta finantzatu ditu osotara, Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, aurreko artikuluko a), c), d), e), f), g) eta h) letretan aipatutako ekintzak...”

Zioak: Aipatzen denean “Nafarroako zuhaitzien azalera handitzea, birsortzeko eta zuhaitzi heldu bilakatzeko gaitasuna duten basoak sortuz” produkzioa helburu ez duten basoberritzei buruz ari da, bertako espezieak erabiliz paisajeak leheneratzea adibidez. Gizarte osoarentzat da onura eta, beraz, oihan administrazioari dagozkio programazioa eta finantzaketa.

53. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Berrogeita hamargarren idatz-zatian, 13/1990 Foru Legeko 75. artikuluko 1. idatz-zatiko p) letran hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa. Hona proposatutako testua:

“Mendiko landare geruzaren funtsezko aldaketa egitea baimenik gabe”

Zioak: Mendiko landare geruzaren funtsezko aldaketa egitea jarduketa garrantzitsua da, eta, horrenbestez, baimena behar du eta ez jakinarazpen soil bat.

54. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Berrogeita hamargarren idatz-zatian aldaketa egiteko zuzenketa.

7. 1 artikuluan, lehenengo lerrokadaren amaieran honakoa gehitzea proposatzen da: “ eta arauhausteok egiten dituztenek erantzukizun administratiboa izanzen dute.”

Zioak: Zuzenketa teknikoa.

55. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Berrogeita hamargarren idatz-zatian, 80. artikuluan hain zuzen ere, honakoak aldatzeko zuzenketa:

“a) ...100 eurotik 6.000 eurora bitarteko isuna.

b) ...6.001 eurotik 100.000 eurora bitarteko isuna.

c) ...100.000 eurotik 1.000.000 eurora bitarteko isuna”

Zioak: Kaltearen arabera baino ez daudenez zehaztuta, ez dago proportzionaltasunik, eta horrela badago.

56. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Berrogeita hamargarren idatz-zatian aldaketa egiteko zuzenketa.

80. artikuluan, beste idatz-zati bat, 2.a, gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“Bidegabeko etekinik lortu bada, zilegi izanzen da isuna handitzea etekin horren halako bi egin arte.”

Zioak: Zigorra handitzea bidegabeko etekinik izanez gero.

57. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.**

Berrogeita hamargarren idatz-zatian aldaketa egiteko zuzenketa.

81. artikuluko e) letran, honakoa gehitzea proposatzen da: “; bai eta jasotako zenbatekoak itzultzea ere.”

Zioak: Ez dirudi zentzuzkoa laguntzak eta diru-laguntzak galdu eta jasotakoak ez itzultzea.

58. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.**

Beste idatz-zati bat, 51.a, gehitzeko zuzenketa.

Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatze-ari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Lege-ari beste xedapen gehigarri bat gehituko zaio.

Hau da proposatzen den testua:

“Xedapen gehigarria.

Lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak jarduketa protokolo bat prestatuko du oihaneko suteei buruz; bertan, Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Departamentuko eta Barne Departamentuko langileen arteko jarduketa eta koordinazio prozedurak ezarriko dira.”

Zioak: Gai honetan jarduketa protokolo bat ezarri behar dela arautzea.

59. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.**

Berrogeita hamargarren idatz-zatian, 90. artikuluko 1. idatz-zatian hain zuzen ere, aldaketa egiteko zuzenketa:

“Oihan administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen behin-behineko neurriak hartu ahalko ditu” esan ordez, hau esan behar du: “Oihan administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen behin-behineko neurriak hartuko ditu”.

Zioak: Usteko arau-hausteen ondorioz kalteak eragiten direnean, administrazioak esku hartu behar du.

60. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.**

Berrogeita hamargarren idatz-zatian, 92. artikuluko 3. idatz-zatian, aldaketa egiteko zuzenketa. Número 3 del artículo 92.

“Kalte-ordaina eskatu ahalko da” dioen lekuan “Kalte-ordaina eskatuko da” esan behar du.

Zioak: Arau-hauste baten bidez lortutako etekin ekonomikoak ez daitezen jarritako zehapena baino handiagoak izan.

61. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.**

Beste idatz-zati bat, berrogeita hamabigarrena, gehitzeko zuzenketa.

Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatze-ari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Lege-ari beste xedapen gehigarri bat gehituko zaio.

Hau da proposatzen den testua:

“Xedapen gehigarria.

Toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bategina onetsi zuen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuko 62.1.f) eta 62.2.c) artikuluetan ezarritakoarekin bat, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatze-ari buruzko foru legeko 74. artikuluan ezarritako salbuespenak aipatutako errege dekretuan jasotako kasu guztiei aplikatuko zaizkie.”

Zioak: Errege Dekretuan jasotako kasu guztietara zabaltzea gaur egun ezarritako salbuespenak.

62. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.**

Beste idatz-zati bat, berrogeita hamahirugarrena, gehitzeko zuzenketa.

Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatze-ari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Lege-ari beste xedapen gehigarri bat gehituko zaio.

Hau da proposatzen den testua:

“Xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuak, ahalik eta lasterren, egurra errepidez garraiatzeko berariazko araudia

prestatuko du, halako moduz non egurra garraiatzeko eskatuko diren pisua eta luzera beste herrialde batzuetan ezarritakoen antzekoak izanen baitira.”

Zioak: Oihan sektorea sustatzea eta beste herrialde batzuekin lehiakorra egitea; era berean, garraioak eragindako kutsadura gutxitzea eta, beraz, Kiotoko Protokoloa betetzea.

63. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Zioen azalpeneko 1. ataleko seigarren lerrokanda aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Hortaz, beharrezkoa da foru araudia Estatukora egokitzea mendi pribatuen arloan.”

Zioak: Ez dugu ikusten zergatik komeni den mendi publikoen arloko foru araudia Estatuko araudiarekin nolabait ere bat etortzea. Zergatik? Foru Hobetzearen arabera, Nafarroak mendi publikoen gaineko eskumena du (jabetza foru erkidegoarena izan edo toki entitateena), eta horiei buruzko politikak ez du zertan Espainiako bera izan behar.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

68/06 Ebazpena, abenduaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarena. Horren bidez, Julián Manteca Pérez, arartekoaren aholkulari teknikoa, kargutik kendu du, berak eskatuta. Kargu-uzteak 2006ko abenduaren 31tik aurrera izanen ditu ondorioak.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 40. artikuluan xedatutakoaz baliatuz,

EBATZI DUT:

Lehena. Julián Manteca Pérez jauna, arartekoaren aholkulari teknikoa, kargutik kentzea, berak eskatuta, eta emandako zerbitzuak eskertzea.

Kargu-uzteak 2006ko abenduaren 31tik aurrera izanen ditu ondorioak.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko kontu-hartzaileari eta interesdunari igortzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko abenduaren 28an

Arartekoa: M.^a Jesús Aranda Lasheras

03/07 Ebazpena, urtarrilaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarena. Horren bidez, José Ignacio Echeverría Echeverría jauna arartekoaren aholkulari tekniko izendatzen da.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 40. artikuluan xedatutakoaz baliatuz,

EBATZI DUT:

Lehena. José Ignacio Echeverría Echeverría jauna behin-behineko langile izendatzea arartekoaren aholkulari teknikoaren eginkizunak betetzeko. Izendapenak 2007ko urtarrilaren 8tik aurrera izanen ditu ondorioak.

Bigarrena. Izendapen honek sortuko dituen gastuak gastuen aurrekontu indarduneko 110 zenbakiko kontusailaren kargura –“Behin-behineko langileen ordainsariak”– ordainduko dira.

Bigarrena. Erabaki hau interesdunari igortzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 3an

Arartekoa: M.^a Jesús Aranda Lasheras

